

Kolpez kolpe... eta Moncloak gehiago iragarri du

Tituluak dioena beteko ez balitz hobe, baina Moncloako bozgorailuek beste asko izango direla diote. Zenbat? Batasuna eta beste erakunde batzuetako zuzendaritzak, eskualdetakoak, herrietakoak... Batasuneko adina partaide ote ditu ETak? Putzua urik gabe uztearen polizi teoria da eta PSOEek gogor astinduko du.

XABIER LETONA

BATASUNAREN Mahai Nazionalaren aurkako polizi operazioak gogor astindu du euskal politika. Su-etenaren hausturaren ondoren, Arnaldo Otegi eta ezker abertzaleko beste zenbait buruzagiren atxiloketak –Juan Mari Olano, Joseba Alvarez, Oihana Agirre...–, PSOEren Gobernuak finkatutako bide-orri berriaren adierazle izan ziren. Eraso berri honen ondorio humanoak: 23 atxiloketa eta horietatik 17 pertsona espetxeratuak, gehienak ETako kide izatearen akusaziopean eta zigor gogorrak bizkarreratzeko arriskupean. Duela 10 urte surrealismoa zena –HBko Mahai Nazionalaren espetxeratzea– gaur egun ohiko bihurtu da.

Operazioaren itzulpen politikoa argia da: ez zaie arnasik hartzen utziko ez Batasunari ezta ezker abertzaleko beste erakunde batzuei ere. Baltasar Garzon epaile izarra erabili du berriz Gobernuak eta beste edozein izango da hurrengoan.

Hedabideen iragarpena

Komunikabideak ere iragartzen ari ziren errepresio kolpe berriak, hilaren 1ean *Publiko* egunkariak zioenez, martxo hauteskunde orokorren aurretik Batasuneko zuzendaritza espetxean egon liteke. Atxiloketen biharamunean, halaber, egunkari bereko kazetari Fernando Gareak ETaren aurkako borrokan Gobernuak hiru ardatz erabiliko dituela zioen: bat, Batasunaren aurkako neurriak; bi, euskal preso politikoen aurkakoak; eta hiru, EAE-ANVren jarduna gertutik jarraitzea, eta Batasunarekin harremanak ikusiz gero lege kanpo uzteko ekimena bultzatzea.

Gareak *El Mundo*-tik heldu da egunkari berrira eta bere albiste eta erreportaiek *Pedrojota*-renean ere polizi iturriekin harreman zuzena eta estua zuela erakusten zuten.

Joan den igandean *El Pais*-ek zioenez, Espainiako fiskaltzak tinkotasunez ekingo dio “ETaren fronte politikoaren aurka” eta horretarako oraindik aske diren Batasuneko buruzagiak atxilotzen saiatuko da. Egunkari honetan ere presoen aurkako neurriak iragartzen dira, ETArekiko ei duten menpekotasuna txikitzeko eta presoek erakunde armatutik aldentzeko aukera izan dezaten.

Batzuetan zaila da pentsatzea espetxe politikan neurri gogorragorik har daitekeen ere, baina denborak erakusten du baietz. 80ko hamarkadan hasi zen sakabanaketa politika eta harrezkero beste neurri ugari ere hartu dira, baina horietako esanguratsuenak mende berrikoak dira. 2003an Jose Maria Aznarren Gobernuak 40 urteko espetxe zigorrari ireki zizkion ateak, erredentziorik gabekoak, osorik bete beharrekoak. 2006an, su-etenaren atarian, Espainiako Auzitegi Gorenak *Parot doktrina* jarri zuen abian, kale-ratzear ziren preso ugari 30 urteko zigorra osorik bete zezaten.

ANVri dagokionez, ez da zalantza handirik Espainiako Gobernuak eta judikaturak eginahalak egingo dituztela euskal alderdi zaharra lege kanpo uzteko. Beste horrenbeste gertatzen da EHAKrekin. Hilaren 5ean alderdi honen Donostiako Belartzako egoitzaren miaketa zorrotza egin zuen Polizia Nazionalak eta nahi diren ondorioak ateratzera lagunduko duen dokumentazio ugari atzeman ere bai.

Honen guztiaren arabera, asko lirake oraindik espetxeratze arriskupean diren pertsonak, besteak beste oraindik aske diren Batasuneko Mahai Nazionalako zenbait kide: Pernando Barrena, Marije Fullaondo, Jone Goirizelaia, Karmelo Landa... Alderdien Legeak dena estaltzen du juridikoki, baina Euskal Herrian bederen, oso garbi dago hau ez dela arazo juridikoa, politikoa baizik. Hala ere, politikari asko zuhur mintzatzen da balorazioetan, operazio hauekin kritiko bai, baina “ikus beharko da autoak zer

MURGIL ZAITEZTE BURDIN HARANEAN!



Bertan ikusgai:

- Euskal Burdinaren museoa
- Mirandaolako burdinola
- Artzantzaren ekomuseoa
- Ogiaren txokoa
- 50. urteetara bidaia, langileen ibilbidea
- Burdinolen taupadak ibilbidea

Urola garaia eskualdeko turismo bulegoa

Mirandaola Parkea (Legazpi)
Tel.: 943 73 04 28
www.lenbur.com
e.posta: mirandaola@lenbur.com

ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



Ezker abertzalean ardurak dituzten eta izan dituzten pertsona ugari Eusko Gudariak abesten Donostian egindako agerraldian.

dioen...” eta gisakoak esanez. Ibarretxe lehendakariaren herri galdeketaaren asmoa ere eremu juridikora eraman dute PP eta PSOEk irtenbiderik ez duela adierazteko.

Euskal Herrian gehiengo oso handiak argi dauka operazio hauen izaera politikoa. Espainia aldean, oster, oso bestelako ikuspuntua dago zabaldua eta han bai, euskal auzia eta ETA-ren aurkako borroka hautesleen fidelizazio programen lehen puntuetan da. Hauteskunde klabea, beraz, funtsezkoa da Batasunaren aurkako operazioaren oraingo arrazoiengan arakatzeke.

Zergatik orain?

Su-eten haustura bakoitzaren ondoren, ekarri du Estatuaren errepresioaren gogortzea, bai ETArekiko eta baita ezker abertzalearen inguruan egituratzen diren gainerako indarren aurka ere. Aljerreko negoziazioen ondoren, Ajuria Eneko Itunak ezker abertzalearen aurkako isolamendu

politiko-soziala elikatu zuen, gizarte mailan enfrentamendu latza bultzatuz baina gatazka politikoa are gehiago kateatuz.

Lizarra-Garaziko su-etenaren ondoren ekin zitzaion Batasunaren ilegalizazioari, ETAren putzua urik gabe uzteko polizi teoriak inoiz baino gogorrago astinduz. Ezker abertzale

Ezker abertzalearen adar politikoa erako erasoak gero eta gogorrago, orduan eta ahulago zuzenbide estatuaren izaera

inguruko pertsona eta erakunde asko harrapatu ditu Estatuak “dena da ETA” deituriko sarean, milaka euskal herritarren eskubide politiko eta zibilak hankaz gora utziz. Euskal Herri-
tik begiratuta, Espainiaren legitimazio demokratikoak arazo asko izan ditu azken 30 urteetan; giza eskubideen ikuspegitik, ezker abertzalearen

adar politikoaren aurkako erasoak gero eta gogorragoak, orduan eta ahulago zuzenbide estatuaren izaera. Demokrazia totalitarioaren kutsua gero eta handiago da.

Azken bake prozesuaren porrotak bide horren jarraipena areagotu du.

Ez da zalantzarik su-etenaren hausturaren ondorio dela operazioa, baina beste arrazoi batzuen indarra ezin da gutxietsi, horietan esanguratsuenak martxoaren Espainiako hauteskunde orokorrak. PSOEren eta PPren arteko lehia estatuaren aurrean, Zapaterok PP bezain gogorra dela helarazi nahi die Espainiako herritarrei.

Eta orduan, airean dagoen galdera zera da, ea Zapatero zintzotasunez aritu den ETArekiko negoziazio prozesuan, edo besterik gabe, prozesua ezker abertzalea eta erakunde armatua ahultzeko tresna gisa erabili nahi izan duen. Gatazkari elkarriketaren bidez aurre egin nahi dion edonork mahai gainean beti izango duen zalantza da, eta erantzunaren aztarnak prozesuan zehar ikusi ahal izango badira ere, benetako erantzuna ez da prozesuaren amaiera arte ezagutuko.

Izan da baita ere, polizi ekimena Ibarretxeren herri galdeketaekin lotu duenik, hainbat hari ukituz gainera. Hilaren 6an Iñaki Iriondok Gara-n idatzitakoaren arabera, Madrilek egurra eskainiko duen bitartean, Ibarretxek azenarioa luzatuko du galdeketa proposamenarekin: “Ez diot Lakua eta Madril ados jarri direnik, baina gertakizunen abiada horixe da”.

Zurrumbiloren errepikapena bizi-tzen ari gara, gatazkaren noriak biraka jarraitzen du, ohi moduan. Orain ETAren txanda da, hori dio gidoiak. ■

www.laiaerretegia.com

arkolla auzoa 33 • Hondarribia
Tel.: 943 646 309
info@laiaerretegia.com